

IRAKURRI AURRETIK

1. Marrazkia ikusita, ba al dakizu zein den testuaren protagonista?
2. Ikusi al duzu noizbait halako animalia bat?
3. Ba al dakizu nola egiten dute lo animalia hauek?

GAUEKO TXORIA

Saguzarra ugaztuna da, baina hegaztiek bezain ondo egiten du hegan. Mutur txikia eta belarri handiak ditu. Bere hegoak ere izugarri handiak dira. Eguna lo pasatzen du kobazulo batean sartuta eta honetarako, hegoekin estali eta hanketatik zintzilikatzen da. Gaua iristean, esnatu eta ehizara joaten da. Batez ere, intsektuak eta lurrian dauden ornogabeak ehizatzen ditu.



(Mantangorri, Gaztetxoan astekaria-2010eko urtarrilaren 9a)



GALDERAK ERANTZUN

1. Nolako itxura du saguzarrak?
2. Noiz egiten du lo? Eta nola?
3. Zer jaten du?
 - a. Intsektuak
 - b. Intsektuak eta lurreko ornogabeak
 - c. Denetarik
4. Saguzarraren elikadura kontuan harturik:
 - a. Saguzarra orojalea da
 - b. Saguzarra belarjalea da
 - c. Saguzarra haragijalea da
5. Zure ustez, zergatik estaltzen da hegoekin lo hartzeko?

